

INDEPENDENTZIA **BUDUAREN** ESKUTIK



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Bois-Caiman (Haiti), 1791ko abuztuaren 14a. Hainbat esklabo bildu ziren budu zeremonia batean, Dutty Boukman *houngan* edo apaiza buru zutela. Animalia bat sakrifikatu eta juramentu bat egin omen zuten, eta Boukmanek frantziar zapaltzaileen aurka altxatzeko deia egin zien, mugimenduko buruzagiak izendatu ondoren.

Handik astebetera, abuztuaren 21eko gauean, Saint-Domingueko esklaboak matxinatu ziren –frantziar koloniak hala zuen izena– eta Haitiko Iraultza hasi zen.

Bois-Caiman errebolaren katalizatzailerat jotzen den arren, frogarik ezak eta testigantza urri lausoez askotariko bertsoietarako bidea zabaldu dute. David Geggus Floridako Unibertsitateko historialarik dio, esaterako, kaimanen basoan ez zela bilera bakarra egin. Lehenik, 200 bat laguneko zeremonia egin omen zuten, nagusiki erlijiosoak. Eta handik bizpahiru egunera bilera klandestinoago bat egin omen zuten Boukmanek eta iraultzako buruzagi izango zirenek, altxamendua planifikatzeko.

Hainbat historialari haitiarrek zailentzen jarri dute Bois-Caiman gertatu zenik ere. Zehazki, Léon-François Hoffmannek 1991n esan zuen Antoine Dalmas plantazioetako mediku frantziarrak asmatu zuela istorioa, esklaboak eta haien sinesmenak gutxiesteko asmoz.



Bois-Caimaneko zeremonia, Andre Normil (1990). Historialariak ez datoz bat 1791ko abuztuko budu zeremonia haren nondik norakoak azaltzean; bada mito hutsa dela esaten duenik ere.

Mito ala errealitate, Markel Thylefors ikerlari suediarren arabera, “Bois-Caimaneko gertakaria haitiarren identitate nazionalaren parte garrantzitsua da, Haitiren genesiari berari lotuta baitago”.

Haitikoa esklaboen matxinadarik nabarmenena izan zen Espartakoren garaitik. Gainera, Antzinako Erromako altxamenduan ez bezala, Haitin esklaboen irabazi zuten. Iraultzak esklabotzaren instituzioa aldatu zuen, arrazen arteko harremanak berrikustea eragin zuen eta Europar kolonialismoa astin-

du zuen. Atlantikoko botere oreka birmoldatzea ere ekarri zuen ezinbestean. Etxean, esklaboen beren burua askatu zuten, askatasunari eusteko borroka egin zuten eta, 1804an, Haitiko estatu subiranoa sortu zuten.

Budua norbaiti kalte egiteko panpinei orratzak sartzeraz mugatu du mendebaldeko begirada miopeak. Karibeko esklabo haientzat askoz gehiago zen. David Geggusen hitzetan, “Bois-Caimanen budua indar bateratzaile eta iraultzaile bihurtu zen”. ■



KEN LUND

Sistema metrikoa, Tucsonetik Mexikora

1975ean, AEBetako kongresuak Sistema Metrikora Bihurtzeko Legea onartu zuen, herrialde osoa sistema metrikoa aldatzea helburu. Aldaketa abian jartzeko Batzorde Metrikoa ere eratu zuten. Besteak beste, Tucsonetik (Arizona) Mexikoko mugara doan estatu arteko 19. errepideko seinaleak aldatu zituzten.

Esperimentuak ez zuen arrakastarik izan, 1982an legea indargabetu eta batzordea desegin zuten, eta aldatutako seinaleak miliatan jarri zituzten berriro. Tucsonetik Mexikora 90 kilometroko –edo 55 miliako– errepidean izan ezik. Bide-seinaleetan sistema metrikoa besterik erabiltzen ez duen AEBetako errepide bakarra da egun. ■